

Lezo, Kondairan zehar (HISTORIA)

Hitzaurre

Sail honetara Lezoko gure herri honi dagozkion une historiko nagusien albisteak dakartzuegu. Honetarako, Lezoko Udal Artxibategiko agiriez baliatuko gara, batez ere bertako herrikoseme den Karlos Etxezurieta jaunak bere idazlan batetan jasotzen dituen arabera (1).

I.- OIARSO HARANA ETA LEZOREN SORRERA

Aintzinatean, euskal lurraldeak ongi mugaturik ez zeuden garaletan, Hondarribia, Hendaia, Irun, Errenteria, Oiartzun, Lezo, eta Pasaiak barnean hartuz, eta Donostiaraino iritsiz, Oiarso edo Oiartzun izeneko eskualdea ezagutzen zen. Lezo oraindik sortu gabe zegoen, eta gaur bereak diren lurraldeetan arrantzale eta artzain txabola batzu besterik ez zeuden.

XII mendean (1.150-54), gure lurralde hau Nafarroako Erresuman sarturik, Antso Jakitun erregeak, Donostiako foruak onartzerakoan, Oiarso Haranari lur eremu haundi bat kendu zion donostiarrei emateko.

1.203 urtean, eta Gaztelako Alfonso VIII.ak emandako agiri berezi baten bidez, Hondarribiak, gaurko Irun, Lezo eta Pasai Donibane barruan zituelarik, bere bereiztea lortu zuen udal propioa antolatuz. Agiri hortantxe esaten denez, erregeak Pasaiako badian dagoen itsasadar batetan, eta beti ere Hondarribiako barrutian, unibertsitate deitura pean herriska bat egiteko baimena eman zion Gilermo Iazon-i Hitz hauk erabiliz:

"ITEM DONO VOBIS GUILLELMUM DE IAZON ET SOCIOS SUOS, UT SINT VESTRI VICINI."

"ERA BEREAN, GILERMO IAZON ETA HONEN IAGUNAK EMATEN DIZKIZUET, ZUEN AUZOKIDE IZAN DAITEZEN."

Honela, nahiz eta Hondarribiaren barruan jarraitu, Lezok bere-bere eremu berezia edukitzea lortu zuen, eta honekin batera errejidore batez eta bi koperoz (tenedore ekonomiko) osatutako administralgo ekonomiko berezia

Gilermo de Lazon izan zen, seguraski, Lezoko herriaren fundatzailea, edo horrela behintzat har dezakegu, zeren eta herriaren izena berea eta beste biztanle baten izenarekin batera azaltzen bait da lehenengo aldiz idazki batetan. Uste denez, Lazon Lezo Haundia etxeko nagusia zen.

Lehen esan dugunez, Hondarribiak 1.203an lortu zuen bere udala, baina, halaz ere, muga asko oraindik ongi finkatu gabe zituenez gero, Oiarzun (Oiarso) eta Hondarribiaren arteko istilu eta eztabaidak oso ugariak izaten ziren. Azkenean, mugak ongi finkatu nahian, 1.470ko abenduaren 2lean, bildu ziren Andrearriaga deituriko lekuan bi herrietako ordezkari eta epai-emaileak. Eta, Lezo Hondarribiako udal barruan zegoelarik, hara joan ziren ordezkari lezoarrak. Dirudienez, 1.556ko otsailaren 27an beste bigarren bilera bat antolatu zen arazoa konpontzeko asmoz. Halaz ere, istiluek gero eta indar gehiagoz jarraitzen zuten. Eta honela, 1.562an Hondarribiako udalak mugarri berriak ezarri beharra izan zuen.

Bestalde, Lezok Pasai Donibanerekin zituen harremanak oso egituak ziren. Diru berdina zerabilkiten, Elizbarruti eta Kabildo berdinetan sarturik zeuden, ospitale bera zeukaten, eta biak txandatzten ziren Jaizkibelgo eremuak aprobetxatzeko garaian. Baina hasiera batetan, loturazko arrazoienak ziren hauek eztabaida eta haserre iturri bihurtu ziren denborarekin. Ondorioz, udal eta erlijios berezketa egin behar izan zen bi herriskin artean. Honela Lezoko San Joan Bataiatzailea eliza lezoarrentzat bakarrik gelditu zen (lehen lezoar eta sanjoandarrentzat bait zen), eta sanjoandarrek berea eraiki zuten. Haserraldiak luzatzen zirenez gero, ordea, 1.557an bi herrietako ordezkariak, konponketa garbi bat bilatu nahirik, adiskidetasun eta adostasun agiri bat sinatu behar izan zuten.

Bainan ez zen auzia hortan baretu, Pasai berezketa osoaren atzetik bait zebilen. 1.614an Pasaiak bere asmoak argi eta garbi azaldu zituen eta 1.756an berarizko udala lortu zuen. Irunek ere 1.776an eskuratu zuen beretzat.

Pasaiak, berezketa lortu ondoren, ongi zehaztu zituen bere muga guztiak, batez ere Lezorekin zituenak.

1.805ko irailaren 26an atera zen errege agiri batek zioenez, bai Nafarroak eta bai Hondarribiak ekonomi aurrerapen bat eduki zezaten, Hondarribia, Pasai Donibane, Lezo eta Irun Gipuzkoako probintziatik kanpo eta Nafarroako Erresumaren barne gelditzen ziren. Eta hala izan zen 1.814 arte. Lezo, ordea, ez zegoen oso ados neurri honekin, prioritate ekonomiko guztia Hondarribiari ematen bait zitzaion, eta makina bat aldiriz eskatu zuen bere desagaxioa bai Nafarroatik eta baita Hondarribiatik ere.

Azkenik, 1.818an Lezo udalerrri bilakatu zen. Udala lortu zuen une hartan, Lezok nekazaritzen eta portugintzan ziharduten 120 famili zeuzkan gutxi gora behera.

Gilermo Lazonen garaietatik udal bezala eratu arte seirehun urte igaro ziren.

(1) Ikus K. Etxezurieta LEZO HERRIAREN IKUSPEGI SOZIO-EKONOMIKO-HISTORIKOA.

Lezo. 1.984ko Maiatza (Argitara gabea)